

# FOOD 2030: I+b-k bermatu egiten du etorkizuneko elikadura-sistema

*Europako Batzordearen xedea da elikagaien eta elikaduraren segurtasunaren erronkari aurre egitea, gure elikadura-sistemen etorkizuna bermatzera zuzendutako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politiken bitartez (I+G+b), horrela jasangarriagoak, erresilienteagoak, arduratsuagoak, inklusiboagoak, anitzagoak eta lehiakorragoak izan daitezen.*

## Eurapako elikadura-sistema eraldatzea

**Europako elikagaien produkzioak eta kontsumoak funtsezko garrantzia izango dute elikagaien eta elikaduraren segurtasuna bermatzean, aldaketa klimatikoak, baliabideen eskasiak, lurraren degradazioak, bioaniztasunaren galerak, desnutrizioak, hazkunde demografikoak eta ezegonkortasun geopolitikoak eragindako erronkei aurre egite aldera.**

Etorkizunean elikagaien eta elikaduraren segurtasuna babestu ahal izateko, egungo elikadura-sistemak sistematikoki eraldatzeaz gain, babestu egin beharko dira epe luzera, gaur egun hein handi batean linealak, zatikatuak eta jasanezinak baitira.

## FOOD 2030

**Europar Batasuneko (EB) elikaduraren arloko I+G-a artikulatzeko, zabaltzeko eta sustatzeko ikuspuntu sistemiko hau FOOD 2030 izenez da ezaguna, eta elikadura-sistemako lau lehentasun nagusientzako konponbideak emango ditu:**

1. **NUTRIZIOA** *dieta jasangarri eta osasungarri* dagokienez
2. **KLIMA**ren aurreko *erresilientzia* eta *ingurumen-jasangarritasuna*
3. **Baliabideen kontsumoaren ZIRKULARTASUNA** eta *eraginkortasuna*
4. **BERRIKUNTZA** eta *komunitateak indartzea*



## EBko ikerketa berritzailea lehen planoan

**Jarraian, 2018an egindako hainbat ikerketa-proiektu aurkeztuko ditugu, asmo handikoak eta punta-puntakoak izan direnak. Horiek guztiak konponbideak proposatu dituzte FOOD 2030en lehentasunei aurre egiteko.** Aipatutako proiektu horiek finantzatzeko, Horizon 2020 programaren baitan elikadura-sistemaren eraldaketarekin erlazionatutako I+b ekintzak baliatu dira:

- **FLOURISH** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/194173/brief/es>): **Nekazaritza eraldatzeko robot berriak:**

Proiektu honek aireko nahiz lurreko robotak garatu ditu nekazaritza-produkzioa handitzeko, pestiziden erabilera murrizteko eta elikagaien segurtasunaren arriskuak murrizteko, horrela jasangarritasuna hobetze aldera.

- **INFARM** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/206087/brief/es>) - **Nekazaritza bertikaletik datozen hiriko elikagaiak:**

Proiektu honen bitartez, ekarpenak egin zaizkio nekazaritza jasangarriari landareen ingurumen-aztarnaren hobekuntzaren bitartez.

- **FOODINTEGRITY** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/110951/brief/es>) - **Sendotu egin dira eskumeneko agintaritzak eta Europako elikagai-industria, elikagaien arloko iruzurrari aurre egiteko:**

Elikagaien industriako gardentasuna sustatzen duen proiektua, elikagaien arloko iruzurra murrizteko eta elikagaien banaketa-kate arduratsua bermatzeko xedea duena.

- **DEPURGAN** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/197962/brief/es>) - **Simaurraren kudeaketa ekologikoa:**

Proiektu honek simaurra kudeatzeko tratamendu berri bat proposatu du, errentagarriagoa eta ingurumena errespetu handiagoz tratatzen duena.

- **EARLYNUTRITION** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/101862/brief/es>) - **Nutrizio goiztiarrak etorkizuneko osasuna zehazten du:**

Proiektu honen bitartez, nutrizio goiztiarraren programazioak eta bizimodu-faktoreek obesitate-tasetan eta erlazionatutako beste nahasmendu batzuetan duten eragina aztertu da.

- **FoodSMART** ([https://cordis.europa.eu/result/rcn/229077\\_es.html](https://cordis.europa.eu/result/rcn/229077_es.html)) - **Etiketikan jaten denean era osasungarriagoan elikatzeko mugikorrerako aplikazioa:**

Proiektu honen barnean, kontsumitzaileei elikagai osasungarriagoak aukeratzeko laguntzeko mugikorrerako aplikazio bat diseinatu da.

- **NUDGE-IT** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/111139/brief/es>) - **Elikadura-ohituren neurobiologia:**

Proiektu honen xedea da zehaztea zeintzuk diren hainbeste jatera eramaten gaituzten elikadura-faktore erabakigarriak, obesitateari aurre egite aldera.

- **SUCCESS** (<https://cordis.europa.eu/project/rcn/193322/brief/es>) - **Europako arrantza-sistema sustatzeko politika eta berrikuntza berriak:**

Proiektu honek arrantza-industriaren prozesamendua eta produkzioa aztertu ditu, baita haren lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko metodoak proposatu ere.

FOOD 2030: Innovative EU research ensures food system is future-ready

(<https://cordis.europa.eu/article/id/400948-food-2030-innovative-eu-research-ensures-food-system-is-future-ready/en>)

---

+ **Food 2030i buruzko informazio gehiago:**

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)